

Euskara estandarren aldakortasuna: *konposizionala ala plurizentrikoa?*¹ Standard Basque variability: compositional *or* pluricentric?

Miren Azkarate*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: This work aims to analyze standard Basque, unified Basque, from the perspective of compositionality and pluricentricity. For this purpose, based on the definitions of the terms compositional standard and pluricentric standard, we will highlight some features of the selection and codification of standard Basque (Unified Basque) with a special focus on the concept of variation. We will also pay attention to the current written uses of standard Basque, specifically those in Bizkaia and in the Northern Basque Country. In the light of all these data, and taking into account the characteristics that sociolinguists highlight for a standard variety to be considered pluricentric, we will argue that the standard variant of Basque should be considered compositional.

KEYWORDS: standard variety; compositional standard; pluricentric standard; variation; Biscayan standard dialect; Navarro-Labourdin dialect.

LABURPENA: Euskara estandarra, euskara batua, konposizionaltasunaren eta plurizentrikotasunaren ikuspegitik aztertzea du helburu lan honek. Horretarako, estandar konposizional eta plurizentriko terminoen definizioetatik abiatuta, euskara estandarren (euskara batuaren) hautatzearen eta kodifikazioaren zenbait ezaugarri nabarmenduko ditugu arreta berezia jarrita aldakortasun konzeptuan. Euskara estandarren gaurko idatzizko erabilerei ere erreparatuko diegu, zehazki, Bizkaiko eta Iparraldeko. Datu horien guztien argitan, eta kontuan izanik soziolinguistek zein eza-

¹ Egileak ikerketarako jaso duen finantziazioa eskertzen du: Eusko Jaurlaritzaren IT1439-22 (2022-2025). Argitalpen hau PID2021-124673NA-100 proiektuaren zati da, eta MICIN/AEI/10.13039/501100011033/ eta FEDERek finantzatzen dute.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Miren Azkarate. Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila - Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateetako etorbidea, 24 (48007 Bilbo). – mirenkarme.azkarate@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-1358-1495>

Nola aipatu / How to cite: Azkarate, Miren (2023). «Euskara estandarren aldakortasuna: konposizionala ala plurizentrikoa?», ASJU, 57 (1-2), 105-119. (<https://doi.org/10.1387/asju.25917>).

Jasoa/Received: 2023-01-16; Onartua/Accepted: 2023-03-24.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

garri nabarmentzen dituzten zentro anitzeko estandarretan, defendatuko dugu euskararen aldaera estandarra konposizionaltzat hartu behar dela.

GAKO HITZAK: aldaera estandarra; estandar konposizionala; estandar plurizentrikoa; aldakortasuna; bizkaiera; nafar-lapurtera.

1. Sarrera

Asko idatzi da euskararen estandarizazioaz, bereziki Euskaltzaindiaren 1968ko Arantzazuko Biltzarraren 50. urteurrenaren harira (Azkarate 2022; Hualde & Zuazo 2007; Salaburu 2015, 2018; Salaburu & Alberdi 2012; beste batzuen artean). Euskararen aldaera estandarren faseak aztertu dira Haugenen (1966, 1987) ereduari jarraiki: *hautatzea*, *kodifikazioa*, *inplementazioa* eta *elaborazioa*. Gutxi aipatu da, baina, gure artean estandar hori *konposizionala* den (Polanco 1984: 116; Ruiz, Sanz & Solé 2001; Costa-Carreras, Amorós-Negre & Pradilla 2023) ala *plurizentrikoa* —euskaraz *zentro anitzeko* ere esan geniezaioke— (Kloss 1967: 31; Edelmann 2016); kanpoko hizkuntzalari eta soziolinguistek kokatu dute euskara sail batean (estandar konposizionalen artean) edo bestean (zentro anitzeko estandarren artean). Euskara estandarra, euskara batua konposizionaltasunaren eta plurizentrikotasunaren ikuspegitik aztertzea du helburu lan honek. Lehenik, *estandar konposizional* eta *plurizentriko* nola definitu dituzten ikusiko dugu. Ondoren, euskara estandarren (euskara batuaren) hautatzearen eta kodifikazioaren zenbait ezaugarri nabarmenduko ditugu arreta berezia jarrita *aldakortasun* kontzeptuan. Euskara estandarren gaurko idatzizko erabilerei ere erreparatuko diegu, zehazki, Bizkaikoei eta Iparraldekoiei.² Azkenik, ondorio batzuk ateratzen saiatuko gara lan honen izenburuan egindako galderari erantzuteko.

2. Estandar konposizionalak / estandar plurizentrikoak, hizkuntza plurizentrikoak

1960ko hamarkadan sortuak dira bai *estandar konposizional* (Haugen 1968) eta bai *estandar plurizentriko* (Kloss 1967) terminoak ere. Haugenek ez zuen ondorengo lanetan erabili *konposizional* terminoa, baina garrantzi handikoa izan da katalanaren estandarizazioan (Costa-Carreras, Amorós-Negre & Pradilla 2023).

2.1. Estandar konposizionalak

Hizkuntza baten aldaera estandarra garatzeko lehen urratsean, *hautatze* fasean egin behar da aukera dialekto bakarra hartu oinarri ala dialekto bat baino gehiagotako elementuez konposatua. Hala dio Haugenek (1968: 267):

There are two rival hypotheses concerning selection: (a) that an SL (standard language) is (or should be) based on a single dialect, that is, someone's vernacular; (b) that an SL is (or should be) a composite of dialects (the nature of the composition

² Alde batera utziko ditugu, hortaz, estandar mintzatua eta aldaera estandarri ez dagozkion idatzizko erabilerak: whatsapppekoak, Instagramekoak eta abar, nahiz horien gaineko azterlanak ere argitaratu diren azken urteetan.

being left unspecified). We may call the first the UNITARY thesis and the second the COMPOSITIONAL thesis. [...]. By the time a norm has been codified and elaborated by its users, it has become virtually impossible to identify its base. It has become an independent artifact in the culture.

Euskararen kasuan, ordea, nahikoa gertu dugu oraindik hautatze fase hori; adierazpen argiak ditugu nola egin zen, zer hautatu zen eta zergatik. Aurrerago helduko diogu berriro auzi honi.

2.2. Hizkuntza plurizentrikoak, estandar plurizentrikoak

Hizkuntzak, baita hizkuntza gutxituak ere, askotan lurralde batean baino gehiagotan hitz egiten direla abiapuntu harturik formulatu zuen Klossek (1967: 13) *estandar polizentriko* kontzeptua; areago, zuzenean aipatu zuen euskara mota horretako estandarrean artean:

Polycentric standards will be found where a language is dominant in two or more geographically separated countries (British and American English; Portuguese in Brazil and Portugal) and in speech communities which are still in the beginning stage of modernization (Albanians, Basques, Kurds, etc.) or where political circumstances have brought about separated developments for two variants of one single language (Roumanian and Moldavian; Serbian and Croatian).

Lerro horiek irakurrita ikus daiteke egoera bat baino gehiago aipatzen direla eta euskara modernizazioaren hasieran dagoen hizkuntza-komunitateen artean aipatzen dela. Izan ere, garai hartan Baionako 1964ko erabakiak ziren aldaera batu baten aldeko lehen ahalegina. Literatura-euskalkiak ziren oraindik ere erreferentzia nagusia; eta horietako bakoitza bazen, neurri batean, aldaera estandar kodifikatua.

Klossen formulazioak ez zuen berehalako jarraitzailerik izan. Hala ere Clyne-ren (1992a) lanaren ondotik ugaritu egin dira zentro anitzeko hizkuntzei buruzko lanak; batzuk baino ez aipatzearren, Muhr (2012, 2016a), Muhr *et al.* (2013), Dollinger (2019).³ Gaurko literaturan zentro anitzeko hizkuntzat hartzen dira suediera, alemana, frantsesa, ingelesa, korearra, arabiera, tamilera, nederlandera, txinera, armeniera, portugalera edo espainiera. *Zentro anitzeko hizkuntza* erabiltzen da lan horietan (eta ez horrenbeste *zentro anitzeko estandarra*). Baina funtsean Klossek (1967) aipatu ezaugarria —bi estatutan edo gehiagotan erabiltzen den hizkuntza— ageri da definizio gehienetan; zentro anitzasun horri loturik dago aldaera estandar bat baino gehiago izatea: «Pluricentric languages are nearly co-extensional with languages extending over two or more nations or states, and having different standard varieties for at least two of them» (Ammon 2008: 1536). Antzeko definizioa ageri da aurrezagoko lan batean ere; zentro anitzeko hizkuntza da herrialde batean baino gehiagotan hizkuntza ofizial nazional edo erregional gisa erabiltzen dena, erabilera horrek barietate estandarrean aldeak eragin baditu (Ammon, Bickel & Lenz 2016: xxxix).

³ Oro har, *Österreichisches Deutsch Sprache der Gegenwart* bildumako 22 liburukiak edo *International Working Group on Non-Dominant Varieties of Pluricentric Languages* taldearen lana eta duten web-gunea <https://pluricentriclanguages.org/>, <https://pluricentriclanguages.org/pluricentricity/what-is-a-pluricentric-language/>

Clyne-ren (1992b: 1) *zentro anitzeko hizkuntzen* definizioa —«languages with several interactive centres, each providing a national variety with at least some of its own (codified) norms»— oinarri hartu eta osatu egin zuen Muhr-ek (2016b: 20) *identitate* kontzeptua gehituta:

A pluricentric language is a language that is used in at least two nations where it has an official status as state language, co-state language, or regional language with its own (codified) norms that usually contribute to the national/personal identity, making the nation a norm-setting centre by the deliberate use of the norms native to this specific nation.

Irizpide-sorta bat ematen du Muhr-ek definizio horretan. 1) Hizkuntzaren eremua (bi estatu gutxienez); 2) ofizialtasuna; 3) arau kodifikatuak izatea; 4) nazioaren edo hizkuntza-komunitatearen identitatea; 5) nazio, eremu hori zentro arau-emaila bihurtzea bertako aldaerentzat.⁴

Hala ere, ez da nahitaezkoa bi herrialde edo gehiagotan erabiltzearen irizpidea (Clyne 1992b; Dollinger 2019: 3). Ammonek (2008) ere «nearly co-extensional» dio, baina definizio zabalagoa ematen du: «Pluricentric languages comprise two or more standard varieties, each of which can be ascribed to, or is valid for, one centre» (Ammon 2008: 1536). *Zentro* izatea zentzu zabalean hartu behar da; nazio bateko eskualdeak ere bilaka daitezke zentro (Norvegia da horren adibide). Irizpide erabakigarria zentro horietako hizkuntzaren estandarizazioa da.

Bestalde, *zentro anitzeko hizkuntza* terminoaren ondoan beste bat ere ageri da: *non-dominant varieties* (Clyne 1992a; Muhr 2012, 2016a; Muhr *et al.* 2013). Hau da, estatu, herrialde edo lurralde batean baino gehiagotan hitz egiten diren hizkuntza horiek badute aldaera estandarra (*dominant variety* edo aldaera menderatzailea) eta badituzte menderatzaile ez diren aldaerak. Hain zuzen ere, menderatzaile ez diren aldaera horietako batzuk bilakatuko dira aldaera estandar; beste batzuk, ez. Aldaera estandarra sortzeko oso garrantzitsua izan ohi da aldaera ez-menderatzaile horiek beren hiztegia izatea eta ondo dokumentatuta izatea ahoskeraren, morfologiaren eta gramatikaren ezaugarri bereizgarriak (Muhr 2013: 14). Azken batean, aldaera horiek Haugenen (1966) urratsak jarraituko dituzte estandarizaziora bidean; eta kodifikazio urratsa batzuetan prestigiodun argitaletxeen esku egongo da; beste batzuetan hizkuntza-akademien eskuetan.⁵

⁴ Garrantzi berezia ematen dio azken irizpideari, arauak kodifikatzeari, *International Working Group of Non-Dominant Varieties of Pluricentric Languages* delakoak. Baina askitzat jotzen dute Muhr-en (2016b) irizpideetako bat betetzea hizkuntza jakin bat plurizentrikotzat hartzeko (<https://pluricentric-languages.org/pluricentricity/what-is-a-pluricentric-language/>)

⁵ Ingelesaren aldaera estandarrek, espainierarenak, Belgikako nederlandera, Austriako alemana edo Finlandiako suediera zertan diren aztertzen du Muhr-ek (2013). Oro har, hizkuntza bakoitzaren kasuan aldaera menderatzailearen eta ez-menderatzaileen arteko egoera zein den aztertzen da aipatu ditugun artikuluko bilduma horietan.

3. Euskararen aldaera estandarra

3.1. Hautatzea

Euskarari dagokionez, erdi-aldeko dialektoak hautatu ziren estandarerako oinarri hizkuntzazko arrazoiak, demolinguistikoak, soziolinguistikoak eta ekonomia eta kulturazkoak kontuan hartuta (Mitxelena 1968: 204; Zuazo 2008: 3-4). «A lo que se llegó allí [Arantzazun] es a una especie de navarro-guipuzcoano (de Beterri, es decir de la parte más próxima a San Sebastián), con toques labortanizantes, entre los cuales estaba, y esto era algo más que un toque, el empleo obligatorio de la letra *h*» (Mitxelena 1982 [2011: 18]).

Jokabide hau ikusirik zalantzarik gabe esango genuke euskararen aldaera estandarra konposizionala dela; izan ere eredu konposizionalak eskatzen du «That[...] a koiné be created, adopting element of various varieties and combining them into one form which did not previously exist, as in the case of Standard Basque» (Stillwell & Hetrovicz 2013: 69-70). Hualdek & Zuazok ere (2007: 152) azpimarratu dute inorena ez izate hori: «At the time of its selection by the Basque Academy, *euskara batua* was nobody's spoken language»; alegia, ez zen euskalki bakar batean oinarritua. Iritzi berekoak dira Polanco (1984), eta Ruiz, Sanz & Solé (2011: 113): «Model composicional o compositiu. [...] amb les aportacions de tots [els dialectes], encara que un pugui tenir més pes que els altres. L'euskera batua (basc unificat) [en] seria un exemple».

3.2. Kodifikazioa

3.2.1. Morfologia

Nahiz eta aldaera estandarra, euskara batua kodifikatzean helburua izan «conseguir una variedad normalizada, común en lo posible, de la lengua para su uso escrito cuando menos» (Mitxelena 1982 [2011: 15]), hautatze-eredu konposizionalak eskatzen zuen bezala, hasiera-hasierako proposamenetan ikusten da dagoeneko euskalki bateko baino gehiagoko elementuei egiten zaiela leku morfologian. Eta jokabide bera nabarmentzen da 1994tik aurrerako arauetan ere, bai morfologian eta bai sintaxian. Ortografia-arauetan, berriz, ez dago aldakortasunik.⁶ Zerrenda labur batean bilduko ditugu morfologiaren aldakortasunaren lekukotza hauek:

—Morfologian bakarra hautatu beharra defendatu arren —«Gramatika alorrean, ordea, berezko dirudi bata ala bestea, ez bata nahiz bestea, hartu behar genukeela, bata ala bestea utzi bertan behera: *gizon-ei* ala *gizon-ai*, *gizon-eri* ala *gizon-er*, ez guztiak nahaste» (Mitxelena 1973: 5)—, argi ikusten da Mitxelena forma beraren aldaerez ari dela, ez forma desberdinez. Izan ere, Arantzazuko txostenean bertan ireki zion atea aldakortasunari (Mitxelena 1968: 216) *-tatik* eta *-tarik*, biak aipatzean eta «bizidunetan, *-gan-ek baitan* (askaturik idatzia) behar luke aldamenean (*-gandik*, *baitarik*, eta abar), biak zilegi direlarik. Bizkaieraz, jakina, *-gaz* arras legezkoa da, beste eskualdeetako *-rekin*-en ordezk».

⁶ Ez da beti, ordea, hala izaten: «The existence of two written standard varieties that are differentiated in morphology, vocabulary, spelling and to a degree in syntax in Norway is interesting» (Dollinger 2019: 27).

- Mitxelena aipatutakoak eta gehiago ere ageri dira postposizio-atzizkiak arautzean (Euskaltzaindia 1979b): instrumentalean *-z* / *-zaz*, *-taz* (izenorde eta galdetzailerekin); motibatiboa: *-gatik*, *-(r)engatik* / *(a)rren*, eta DS pluraletan *-engatik*, *-ak-(g)atik*; destinatiboa: *-(r)entzat* / *-(r)endako*; prolatiboa: *-tzat* / *-tako*; ablatiboa:⁷ *-tik* / *-tatik*, *-tarik* // *-(r)ik*; adlatibo bide zuzenezkoa: *-(r)antz*, *-(r)at* / *-tarantz*, *-tarat*; destinatiboa: *-ko* / *-tako* // *-kotz* / *-takotz*. Izen biziduna ardatz duten DS edo ZenbSintagmei dagokienez ere ageri da aldakortasuna: inesiboa *-gan* / *baitan*; ablatiboa: *-ganik*, *-gandik* / *baitarik*; adlatiboa: *-gana* / *baitara*; adlatibo bide zuzenezkoa: *-ganantz*, *-ganat*. Postposizio atzizki horiek guztiak *-en* genitibo edutezkoaren ondotik ere joan daitezke.
- Bada aldakortasuna erakusleen aldaera estandarerako formak kodifikatzean ere (Euskaltzaindia 1979a: 632): «*Hone(n)gatik*, *horre(n)gatik*, *hare(n)gatik* era honetan eman ziren ontzat. *Hargatik* bizigabea denerako ontzat eman zen, halere. *-taz*, *-zaz*: biak onartu ziren [...] *-tatik*, *-tarik*: bi formak uzten dira oraingoz».
- Zenbait aditzen erregimena (39. araua) *deitu* eta *lagundu* aditzetan bitako erregimena onartzen da: *lagundu zaitut* eta *lagundu dizut*; *deitu zaitut* eta *deitu dizut*, Iparraldeko eta Hegoaldeko literatura-tradizioa kontuan hartuta.
- Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma arautzean (85. araua):⁸
- Zenbait aditz partizipioren forma zaharra eta berria, biak onartzen dira: *ahantzi* / *ahaztu*, *jarrائي* / *jarraitu*, *sinetsi* / *sinestu*, *iratzarri* / *iratzartu*...
 - Etorkizuneko partizipioa osatzeko, *l* amaierako partizipioen kasuan, *-go* nahiz *-ko*, biak dira zilegi: *hilgo* / *hilko*
Zilegi da, halaber, partizipioa *-n* / *-l-z* amaitzen duten aditzekin *-en* atzizkiak baliatzea etorkizuneko formak osatzeko: *jinen*, *ukanen*, *hilen*, etab. Nolanahi ere, tradizio jakina eta mugatua duten aditzetan tradizio hori kontuan hartu behar da: Iparraldeko aditzat hartzen ahal direnekin *-en* ongi dator, baina Hegoaldeko tradiziokotzat soil-soilik hartzen ditugunekin ez hainbeste. Beraz, *irten* aditzaren kasuan, adibidez, hobe beti ere *irtengo irtenen* baino. Eta, alderantziz, *jinen* eta *ukanen*, *jingo* eta *ukango* baino.
- Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzailedunetan mugatu singularra noiz erabil daitekeen (110. araua):
- Iraupena adierazteko inesiboa baliatzen denean mugatu singularreko forma hobesten da, baina ez zaio debekurik jartzen sintagma mugagabea erabilteari («zilegi da»).
 - Maiztasuna adierazteko, berriz, hainbat postposizio-atzizki har ditzake zenbatzaile sintagma mugagabeak (*lau urtez behin*, *lau urtetarik behin*, *lau urte-*

⁷ Bai hemen eta bai adlatiboan zein destinatiboan marra etzanaren ezkerreko forma sintagma mugatuei dagokie eta eskuinekoa, berriz sintagma mugagabeei. Zehazkiago esanda, DSei (nahiz determinatzailea formalki ageri ez) edo Zenbatzaile sintagmei. Azken hauetan ageri da aldakortasuna, oro har.

⁸ Euskaltzaindiaren webgunean aurki daitezke arauak bere osotasunean: <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/baliabide-orokorrak/arauak>

tarik lau urtetara, lau urterik behin) nahiz mugatuak (*lau urtetik behin, lau urtetik lau urtera, lau urtean behin*). Euskaraz tradizioan errotuta dauden forma horiek guztiak dira zilegi eta erabilgarri aldaera estandarrean.

- *Behar izan* eta *nahi izan* aditzen erregimenari dagokionez (hurrenez hurren, 113. eta 114. arauak) bi aditz horiek aditz laguntzaile iragankor gisa jokatu direla arautzen da, «ondoan agertzen den aditz osagarria edozein motatakoa delarik, iragangaitza denean ere bai». Baina ondoren eransten da zenbait euskalkitan, Iparraldekoetan bereziki, onartzen dela *izan* laguntzailea hartzea aditz iragangaitzekin (hau da: *joan behar naiz, ez zara ikaratu behar*). Eta *nahi izan* aditzaren kasuan, ez da gaitzesten Ipar ekialdeko euskalkietako erabilera: *joan nahi zara, orain zurekin mintzatu nahi naiz*.
- Aditz laguntzaileen formak arautzean, ordea, Mitxelena ez zuen lekurik ikusten aldakortasunerako, bateko eta besteko tradizioa integratu ahal izateko. Hiztegian ez bezala, «batzekotan, berea utzi beharko lukete askok, amore eman eta besterenera makurtu» (Mitxelena 1968: 217). Eta aldaera bakarria hartzekotan, «Gipuzkoako aditza hartu behar da oinarri, ezpairik gabe. Gipuzkoa eta Nafarroa garaikoa» (Mitxelena 1972a: 122). Eta handik urte batzuetara, «se acabó por adoptar un verbo auxiliar navarro-guipuzcoano que además, en parte, es o ha sido vasco común» (Mitxelena 1982 [2011: 18]).

3.2.2. *Lexikoa*

Hasiera-hasieratik agertu zen Mitxelena (1968: 211) alde bateko eta besteko hitzak hartzearen alde, itxuraz elkarrekin zerikusirik ez dutenean. «Hiztegi auzietan, horrelako ugaritasuna ez da maiz asko aberastasuna baizik: *agitu*-ri, esate baterako, ez dio kalterik egiten aldamenen *gertatu* nahiz *jazo* edukitzeak, ezta *erori*-ri ere *jausiren* hurbiltasunak» (Mitxelena 1973: 617). Literatura-tradiziokoak diren hitzak, guztiak sartu dira *Euskaltzaindiaren Hiztegian*. Lehenik *Orotariko Euskal Hiztegia* egin izanak asko lagundu zuen literatura euskalki bateko eta besteko hitzak hartzeko, eta hitzen hedaduraz jabetzeko. Beraz, alde horretatik nekez esan daiteke aldaera estandarren ikuspegitik aldaera ez-dominatzaile lirakeen bizkaierako edo lapurterako hitzak baztertu direnik; egoera ez da, beraz, esaterako, Austriakoaren parekoa.⁹

3.2.3. *Sintaxia*

Sintaxi-egiturei dagokienez, hiztegian egin bezala, literatura-tradizioko egiturak, alde batekoak eta bestekoak, jaso dira *Euskararen Gramatikan*. Hedadura zabaleko egitura guztiak dira onargarri aldaera estandarrean bai erlatiboko perpausetan, bai moduzkoetan, denborazkoetan edo beste edozein perpaus motatan; baita perpaus jokatugabeetan ere. Horrela jokatu dute inguruko Akademietako gramatikek ere; gali-

⁹ Austrian, *Österreichisches Wörterbuch* (Austriako alemanaren aldaeraren hiztegia) saiatu zen 1979ko argitaraldian Austrian erabiltzen ziren eguneroko hitzak desestigmatizatzen, baina zorrotz kritikatu zuten elite kulturalako kideek eta zenbait hizkuntzalari alemanek eta, jarrera horren eraginez, hizkuntza estandarretik kanpo geratu zen benetan erabiltzen zen hizkuntzaren zati on bat (Mühr 2013).

zieraren edo katalanaren egitura guztiak integratzen saiatu dira. (Álvarez 2020: 244; Rigau 2020: 323). *Institut d'Estudis Catalans*-ek konposizionaltzat jo du jokabide hori, Gramatikaren sarreran: «Es tracta d'un model composicional que admet la variació i, doncs, que accepta el polimorfisme» (*Gramática de la llengua catalana* 2016: xiv). Espainieraren kasuan, aldiz eremu geografikoa(k) askoz zabalagoak direlako agian, eta aldeak ere askoz nabarmenago, *polizentriko* gisa definitu dute irizpide horien arabera jokatzeari (Real Academia Española y Asociación de Academias de la Lengua Española 2009: XLII):

[...] la asunción del principio de que hoy la norma tiene carácter policéntrico. La muy notable cohesión lingüística del español es compatible con el hecho de que la valoración social de algunas construcciones pueda no coincidir en áreas lingüísticas diferentes. No es posible presentar el español de un país o de una comunidad como modelo panhispánico de lengua. Tiene, por el contrario, más sentido describir pormenorizadamente las numerosas estructuras que son compartidas por la mayor parte de los hispanohablantes, precisando su forma, su significado y su estimación social, y mostrar separadas las opciones particulares que pueden proceder de alguna variante, sea del español americano o del europeo.[...]. Obrar de este modo no solo no pone en peligro la unidad del español, sino que contribuye más bien a fortalecerla, y ayuda a comprender su distribución geográfica de forma más cabal.

3.3. Bizkaiko eta Iparraldeko zenbait idatzizko erabilera

Orain arte ikusi dugunetik ondoriozta daiteke euskararen aldaera estandarra kodifikatzean ahalegina egin dela estandar bakar eta zurrunetik aldendu eta aldakortasuna barneratzeke, tradizioa duten forma eta egiturak integratzeko estandar horretan. Aldakortasun horri esker proposatu dute Zuazok & Badihardugu elkarteak (2002: 44) *eskualdeko batua*, herrietan-eta aldaera estandarra erabili behar denean herritarren aldaeratik ahal den gertuenekoa izan dadin. Euskara estandarrak edo euskara batuak izan duen harrera ona ere azpimarratu izan da (Hualde & Zuazo 2007; Salaburu 2015). Hala ere, idatziz aldaera estandarra eskatzen duten erabileretan batetik bizkaiera aurkituko dugu eta, bestetik, nafar-lapurtera bai eta zuberera ere. Kontuan izan behar da euskaraz literatura-euskalkiek oinarri sendoa ematen diotela bizkaiera edo nafar-lapurtera estandartzat har dezakegun aldaerari. Erabilera horiek aztertuko ditugu hemen.

3.3.1. Bizkaiera

Bi eremutako euskara ereduaz aztertu dugu: erakunde publikoetako eta hezkuntza munduko. Foru Aldundiaren eta Batzar Nagusien webguneetako euskara-eredua aztertuz gero, deigarria da erakunde baten eta besteen jokabidearen arteko aldea. Foru Aldundiaren webgunea euskara batuan dago, 3.2. puntuan aztertu dugunaren arabera kodifikatutako aldaeran. Atariko informazioari begiratu bat ematea nahikoa da horretaz jabetzeko.¹⁰ Unai Rementeria Ahaldun Nagusiaren agurra irakurtzean aditz batuko formak ikusiko ditugu (*naiz, ditut, bizi garen, egiten diegu...*) edo gaur

¹⁰ <https://web.bizkaia.eus/eu/hasiera>

aldaera estandarrean orokorrak diren, baina bizkaierazkoak ez diren, egiturak (*marka sakona dutelarik*). Erakusleetan ere aldaera estandarri dagozkionak ageri dira (*lau urte hauei*) eta lexikoan Bizkaikoa ez den *utzitako* (aldaera estandarrean *lagatako* ere guztiz onargarria da). Agurra luzeagoa den arren, lehen paragrafoa bakarrik ekarriko dugu hona:

Unai Rementeria Maiz naiz, Mundakako bizilaguna. 48 urte ditut, ezkontuta nago eta bi seme ditut. Bizkaiko gizon eta emakumeen gehiengoak 2019ko foru hauteskundeetan erabaki zuen nigan konfiantza izatea Bizkaiko Ahalduen Nagusiaren kargua hartzeko. Beraz, geroztik milioi bat pertsona bizi garen lurralde zoragarri hau, Bizkaia, kudeatu eta hobetzeko lantaldearen gidaritzan dihardut. Erroka zorrotz eta ilusionagarri horrekin egiten diegu aurre lau urte hauei, guztia baldintzatu duen pandemia honek utzitako marka sakona dutelarik dagoeneko.

Atal guztiak: Gaiak, Izapideak, Aldundiari berari buruzko informazioa, guztia dago aldaera estandar orokor dei dezakegun horretan. Berdin gertatzen da Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko edukiekin ere.

Batzar Nagusietako webgunean, aldiz, lehen hitza bera aldentzen da estandarretik: *basierea*. Kasu honetan ere, Batzar Nagusietako buru den Ana Otadui andrearen agurrak¹¹ argi erakusten du zein den hizkuntza aldaera:

Bizkaiko Batzar Nagusien izenean, ondoetorria emoten deusut, bihotzetik, Bizkaiko Parlamentura. Webgune honetan, informazio zabala aurkituko dozu foru-erakundeen tradizio historikoaz, euren gaur egungo eraketaz eta Bizkaiko Batzar Nagusietan egiten diran jardueraz.

Berton ezagutuko dozu zein dan parlamentu honen araugintza-ahalmena, eta sakondu eta aztertu ahal izango dozu Bizkaientzat interesgarriak diran gaietatik zeintzuk dagozan gaur egun izapidetze-aldian edo zeintzuk jorratu diran aurretiaz.

Webgune ofizial honek, XI. agintaldiaren amaieran barritu danak, herritarrek parte hartzeko lekua be badauka. Izan be, herritarren eretxi edo oharra aintzat hartuko dira beti, eta behar dan moduan baloratuko dira, uste dogulako pertsonak askatasunez komunikatzea funtsezkoa dala lurralde historikoa modu demokratikoan garatzeko eta parlamentu-organoek lana hobeto egiteko.

Horregaitik gustauko litxakigu zuk zer egiten dogun jakitea, gure jarduerak ikuskatzea eta Bizkaiko historian hain sustraiturik dagoan erakunde honetan beste pertsona bat lez integratzea.

Sarrera-agur horretako hitzak eta webgunean ageri diren beste pasarte batzuk aztertuta argi dago bizkaiera estandar dei dezakegunaren aldeko aukera:

- Aditz-formak bizkaierari dagozkionak dira: *emoten deusut, espero dot, dagoan, dagozan, bultzatzen dabe, egin dogu, aurkitu daian, gustauko litxakigu* (agurretik kanpoko ataletan ere: *ezagutu gaizuz, zeren bila zabilz?, erabilten dabe, egin daitezala agintzen dau, eskuemon leikiola, bultzatzen gabilz, izan daitezanagerako, agindu jakien...).*
- Lexikoan aldaera estandarrerako aukeratu ez diren formak: *tradizino, informazino, mozino, erabagi, lez,*¹² *be, barritu, autortu, eretxi, bardintasun...*

¹¹ <https://jggbizkaia.eus/eu/agurra>

¹² Mitxelena (1968: 212) bereziki gaitzetsitako forma laburtua *legez* osoarekin alderatuz gero.

- Aditz partizipioak eta aditz-izenak: *kontroletan*.
- Erakusleen formetan: *erabagi horreetan*.
- Determinatzaile sintagma osatzean, *-a* amaierako izenak ardatz dituzten sintagmei artikulua eranstea: *kudeaketeta, hasierea, osaerea, antolaketea...*

Baina, aldi berean, argi ikusten dira mugak ere. Terminologia aldaera estandarrekoa da: «Batzar Nagusiak Bizkaiko lurralde historikoko herritarren ordezkaritza- eta partaidetza-organo goren dira» (erakundearen definizioa ematean). Otadui andrea-aren agurrean bertan ere: *araugintza-ahalmen, izapidetze aldi, herri-lan, gizarte-laguntza, irisgarri, foru-arau...*

Hezkuntzaren alorrean ere antzeko bitasuna aurkituko dugu: batetik, Bizkaiko ikastola guztiak biltzen dituen Bizkaiko Ikastolen Elkarteko webguneak euskara estandarren alde egin du. Jokabide bera jarraitu dute ikastola gehien-gehienek ere. Lekeitiokoak, esaterako, baliatu du *-gaz* postposizioa (Mitxelenak Arantzazuko txostenean aipatua): «euskararen erabilerari bultzada emateko helburuagaz», baina salbuespenak dira horrelakoak. Tokiko aldaera oso bizirik duen Bermeoko ikastolaren webgunean, aldiz, estandarra nabarmen nagusi izan arren, badira bizkaierazko egiturak ere: «non gagoz» edo *Euskeraz Bizi* proiektuaz ematen den informazioa (aditzean egiten zaio leku bizkaierari, baina ez lexikoan: *hitz egin* eta *ez berba egin*):

Euskal Herrian, normalizazio bidean aurreratu nahi bada, eguneroko bizitzan, eskola eremuan zein norbanakoen harremanetan GURE IKASLEEK EUSKARAREN HAUTUA EGIN DAGIEN nahi badogu, hainbat estrategia eta baliabide eskaini beharra dogu [...] euskaraz hitz egiteko ohiturak sendotuz [...]. ARGITXO da Euskeraz Bizi proiektua garatzen dauan pertsonaia. (<https://eleizaldeikastola.eus/euskeraz-bizi>).

Nolanahi ere, hezkuntzan, idatzizko erabileran aldaera estandarra da nagusi webguneetan, bai eta ikasmaterialgintzan ere (Zalbide 2011: 387). Bizkaian, beraz, aldaera estandarri dagozkion idatzizko funtzioetan Batzar Nagusien jokabidea da gainerakoetatik aldentzen dena.¹³

3.3.2. *Iparraldea*: Euskararen Erakunde Publikoa, *Seaska*, *Herria*

Euskararen Erakunde Publikoak (EEP), hezkuntza munduak (Seaskak) eta *Herria* aldizkariak zein euskara-aldaera darabilten aztertzean, aldeak aurkituko ditugu batzuetatik besteetara. EEPk euskara estandarra darabil, 3.2. puntuan nabarmendu dugun aldakortasun horretan askotan Iparraldeko ereduaren alde eginez. Honako hauek adibide batzuk baino ez dira Hizkuntza Politika Proiektutik hartuak:¹⁴ «aldaketa horiek guziak», «Alta, ekimen horiek eta emendatuz doan mobilizazioak», «hiz-

¹³ Udaletan ere alkateen agurrak aztertuz gero, aurkituko genituzke bizkaieraren aldeko keinuak aditzetan, estandarren aldakortasunak onartzen dituen bizkaierazko formak, eta, horrekin nahasian, estandar orokorretik hartu eta ekialdeko formak ere bai. Lekeitioko Alkatearen mezua izan daiteke adibide ona: *nigaz, biharragaz, nahi dot, atarako doguzela, egin daigun* (baina *eman nahi dizkiot, behar dugu, gauden*) / «garrantzitsuena ez baita alde batekoa edo bestekoa izatia,» Gainerako atalak: zerbitzuak, trami-teak, turismoa... aldaera estandarrean.

¹⁴ <https://www.mintzaira.fr/eu/hizkuntza-politika-proiektua.html>

tunen kopurua ttipitzen ari da», «Beharrik, badirudi [...]», «indar horien bideratzea», «urraspideari ofizialtasunaren ematea», «eraman beharreko politikaren libreki definitzea». Oro har, ekialdeko ñabardurez baliatzen den aldaera estandarra ikusten dugu hor.

Ikastolen eremura etorrira, Seaskaren webguneko aldaera estandarren ondoan, nafar-lapurtera edo nafar-lapurteraren zantzuak ageri dira hainbat ikastolako webgunetan (aldaera estandarretik aldentzen diren aditz formetan, erakusleetan, datiboan...) eta, oro har, EEPn bezala, estandarren aldakortasunean Ipar-ekialdeko formak. Esaterako, Kanboko Errobi ikastolaren aurkezpenean: «Nor gira?», «erakasle», «buraso» edo frantsesetik hartu terminoak «ibilmolde fresak». Amikuzeko ikastolan ere «haur, burraso eta erakasleek», «huna», «irakurtzen ahal ginuen», «hurbiltzen ahal zirezte». Itsasuko Arrokaragai ikastola: «etapa zonbeiten ondotik», «irailan ideki da», «Luhoso eta Makeatik jinak». Ortzaiako ikastola: «Ongi etorri Ortzaiako Ikastolarat», «2022ko buruilaren lehenean iragan da ikastolako sartzea», «Ongi etorriak berriz haur eta familia guziera elgarrekin partekatuko dugun ikasturte berri hunentzat!». Zuberoako ikastola bakanetan zuberera da nagusi. Basabürüko ikastola: «Basabürüko ikastolak bere bortak zabaltü zütian 1978an [...]. Ordü hetan haur güti zen ikastolan. Honek haatik ezarri zian pikoan immerzio eskola bat. Etxeko zunbaiten nahiak eta anderenoer esker, haurrek ahal üken die jarraiki hatsarre batetan beren kursoak eüskaraz».

Herria aldizkaria aztertzeko, hiru atal bereiziko ditugu: a) hasierako artikuluko luzeak eta nazioarteko nahiz Frantziako gaiak (aldaera estandarra eskatuko luketenak). b) *Haziak loratzen* saila, AEKko ikasleek idatziak biltzen dituena; c) *Haziak mintzo*, ikastoletako neska-mutilen lanak jasotzen dituena.

- a) Artikulu nagusietan, ikastoletako webgunetan bezala, nafar-lapurterako erakusleen formak, hitzen aldaerak, datiboak, aditz-formak irakur daitezke (baina ez modu sistematikoan): «mugaz gaindiko lankidetzaz sustatzen ari gira», «nor ditake?» «kontatzen zaukuten», «aurkeztu daukute», «azaltzen zaukun» (baina «aipatu dizkigu», «egiten dio», «emaiten dizkio»), «erakasle», «hiritarreri», «enpreseri eta eragile publikoeri», «mugimendu hunek», «astekari huntan aipatu ginuen», «hogoita-zonbait presuna». Eta aldaera estandarrean, Ipar-ekialdeko formen alde egiten da: «egoera horretarik landa», «bere baitarik», «guri buruz hurbildu dira», «Afrikara buruz egin behar zuen bidaia», «ordueta hasi lanaren berri emaiteko», «izanen da», «iraunen du», «energia nuklearraren bultzatzeko», «planeta lanjerean», «goizeko hiruak iria».

Zuberoako gaietan, zuberera da nagusi: «badü bost urte Simone Veil anderea zentü dela, 2017ko arramaitzaren 30ean. Emazte honen bizia eta engaiamentüak ikusgarri dirate üda hontan, muskildiarrek jokatüko düen pastorealean, Europako Batarzüneko herrialdeen artean anaitarzünaren azkartzeko üken düan nahiküntea, emanaldi bakoitxarentako badate 2.000 lekü».

Baina, bizkaieraren erabilera aztertzean ikusi bezala, hemen ere terminologia (*elaborazio* fasea) estandar orokorrekoa da: «trantsizio ekologiko eta energetikoaren presidente-ordea», «energia kontsumoa murrizteko», «eraikinen energia eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien aldeko inbertsioetarako laguntza tekniko», «berotegi-efektuko gasen isuria %56ra murriztea», «ener-

gia-kontsumoa %49ra eta energia-beharren %100 energia berriztagarrien ekoizpenaren bidez lortu nahi du».

Gaurko estandarrean eredutzat hartzen ez diren egiturak ere aurki daitezke: «eskua eta tresnaren arteko koordinazioa», «aurten orotara 61.281 eusko banatuak izan dira [...] jaz 50.450 eusko izan zelarik».

- b) *Haziak mintzo* ikastoletako neska-mutilen idatzietan ere irakurriko ditugu «bildu gira», «hartu ginuen» (baina «antolatu genuen»), «jin dira», «jin zauku» (baina «erakutsi dizkigu»), «ikasleeri», «bolondres guziera». Aldaera estandarrekoak diren «jin dira» (baita «etorri dira» ere), «egonen», «eskola gibelean», «ipuin musikatu baten aurkeztera», «ibilbide baten egitera», «ttantola baten muntatzera», «aitari eta amari pentsatzen nuen», «damu nuen hori erranik», «atera nau ene ametsetarik», «azken errepikarentzat publikoak haurrekin kantatzen zuela.»

Mauleko ikasleek zubereraren egiturak baliatzen dituzte: «nafartar zombait errezebitzen dütü», «algarregin gure eüskara aberasten dügü», «barnetegia izigarri untsa dela lagün berrien egiteko», «ürrietaren 4an», «maitarzüna», «bake mezü bat eman deikü mundial üngürümen bortitz huntan».

Baina estandar zaindurako gomendatzen ez diren egiturak iritsi zaizkie Iparaldeko ikasleei ere: «Bi aste eta gero», «hor zen ere bai», «sukaldata», «ostatua edo taloen inguruan elkartu ginen».

- c) AEKko ikasleen testuak dira nafar-lapurteraren eragin gutxien dutenak: «sarritan aspertzen gara», «agertuko zaigu», «abesten digute», «erran zigun», «erran dezakegu», «aro-ikerleek zernahi kontatzen digute», «besta honen kari».

4. Zenbait gogoeta ondorio modura

3.2 eta 3.3 puntuak aztertutik, zer ondorio atera daiteke? Euskararen aldaera estandarra konposizionala da? Haugenen (1968: 267) definizioaren arabera, ez da zalantzarik euskararen aldaera estandarra konposizionala dela. Euskara zentro anitzeko hizkuntza da? Galdera horri erantzuteko 2.2 puntuan ikusi ditugun Muhr-en (2016b: 20) irizpideak hartuta ez da zalantzarik, Edelmannek (2016: 102) dioen bezala, euskarak betetzen dituela hiru irizpide: lurralde batekoa baino gehiagotakoa da, koofiziala da lurralde batzuetan eta aldaeren artean badago nahikoa distantzia aldaera bakoitza identitatearen sinbolo izateko. Beraz, euskara ere zentro anitzeko hizkuntzat hartuko genuke. Aldaera estandarra, inongo lurraldeko aldaera ez dena, har daiteke aldaera menderatzailetzat; eta lurraldeetako aldaerak, euskalki literario gisa estandarizatuak zeudenak, aldaera ez-menderatzailetzat. Edelmannek (2016: 103) dioen bezala:

As opposed to other languages, where one variety spoken in a certain territory is dominant, Euskara shows the particularity that Euskara batua is not the variety of a given territory [...]. However, if we apply the criteria established to define a dominant variety, I come to the conclusion that Euskara batua can be considered as the dominant variety of Euskara in Euskal Herria.

Ikuspegi honek bateragarri egiten ditu aldaera estandar konposizionala izatea eta zentro anitzeko hizkuntza izatea, Costa-Carreras, Amorós-Negre & Pradillak (2023:

209) estrategia bateraezintzat dituzten arren: «*Compositionality* and *polycentrism* seem in principle incompatible standardising strategies, given that the former is carried out in a single centre of standardisation whereas the latter is carried out in more than one center». Baieztapen horretan *polizentriko* terminoak berarekin dakar zentro edo eragile batek baino gehiagok parte hartzea aldaera estandarrean. Baina euskararen kasuan, Euskaltzaindia da aldaera estandarren zentroa. Aldi berean, argi dago ez Bizkaia, baina ezta Iparraldea ere, ez direla zentro arau-ezarle. Eusko Jaurlaritzak eskolan erabiltzeko bizkaieraren ortografia, morfologia eta sintaxia arautu arren, aldaera estandarra nagusitu da hezkuntzan, administrazioan eta erakundeetan. Aldaera estandar horrek badu lekua bizkaierazko lexiko, sintaxi-egituretarako... Baina 3.3 puntuko adibideak ikusita, aldaera estandarretik aldentzen diren hitzen aldaerak edo aditz formak «errebindikatzen» dira. Horiek dira bizkaitarrentzat beren identitatearen sinboloak. Mitxelenaren (1972b: 391) hitz hauek ere hala iradokitzen dute: «Hizkuntzalariek, orobat, beti esan dute Bizkai aldekoa dela euskalkien artean bereizkuntzarik nabarmenenak berezko dituen eta bereizkuntza horiek, bestetan baino areago, aditzean dira nabari».

Iparraldean nabariago da ofizialtasunik ezaren eragina. Adin batetik gorako jendeak ez du aukerarik izan eskolan aldaera estandarraz jabetzeko. Hedabideei dagokienez, nafar-lapurtera literarioa da erabiltzen dena eta, askoz gutxiago zuberera literarioa (Diaz Noci 2002: 163). Baina esan daiteke gazteagoen idatzietan nabari dela ikastolen eragina, esaterako aditz formetan. *Euskararen Erakunde Publikoak* ere Iparraldeko egiturei leku egiten dien aldaera estandarra onartu du.

Bestalde, *elaborazio* urratsean landutako terminologia da bai Bizkaian eta bai Iparraldean erabiltzen dena. Aldaera estandar (aldakor, konposizional) hori da gaur «the leading norm, even though it may not be the variety of the majority of speakers» (Muhr 2013: 31). Egoera hori ere aldatzen ari da (edo aldatu da) euskararen kasuan: eskolari esker, aldaera hori da gaurko gazteen erdiak baino gehiagok duen aldaera bakarra. Dollinger-en (2019: 21) kontzeptua baliatuz, euskararen aldaera estandar konposizionala da gaur egun, zalantzarik gabe, euskararen *Überdachung* edo 'teilatua', erreferentzia puntua.

Erreferentziak

- Álvarez, Rosario. 2020. A fuego lento: la ansiada gramática de la RAG. *Euskera* 65(2). 239-256.
- Ammon, Ulrich. 2008. Pluricentric and Divided Languages. In Ulrich Ammon, Norbert Dittmar, Klaus J. Mattheier and Peter Trudgill (arg.), *Volume 2: An International Handbook of the Science of Language and Society*, 1536-1542. Berlin & New York: De Gruyter Mouton. <https://doi.org/10.1515/9783110171488.2.8.1536>.
- Ammon, Ulrich, Hans Bickel & Alexandra Nicole Lenz (arg.). 2016. *Variantenwörterbuch des Deutschen. Die Standardsprache in Österreich, der Schweiz, Deutschland, Liechtenstein, Luxemburg, Ostbelgien und Südtirol sowie Rumänien, Namibia und Mennonitensiedlungen*. Berlin & Boston: De Gruyter.
- Azkarate, Miren. 2022. Euskara batuaren nondik norako linguistikoak. In Andrés M. Urrutia (arg.), *Arantzazutik mundu zabalera. Euskararen normatibizazioa: 1968-2018 (Iker bilduma 40)*, 199-213. Bilbo & Madril-Frankfurt: Euskaltzaindia-Iberoamericana & Vervuert.

- Clyne, Michael (arg.). 1992a. *Pluricentric Languages. Differing Norms in Different Nations*. Berlin & New York: Mouton de Gruyter.
- Clyne, Michael. 1992b. Pluricentric Languages. Introduction. In Michael Clyne (arg.), *Pluricentric Languages. Differing Norms in Different Nations*, 1-9. Berlin & New York: Mouton de Gruyter.
- Costa-Carreras, Joan, Carla Amorós-Negre & Miquel Àngel Pradilla. 2023. *Compositionality in comparative standardology*. In Francesc Feliu (arg.), *Desired Language: Languages as objects of national ideology*, 203-218. Amsterdam: John Benjamins.
- Díaz Noci, Javier. 2002. Lengua estándar, dialectos y medios de comunicación: el euskera. *Mediatika* 9. 161-183.
- Dollinger, Stefan. 2019. *The Pluricentricity Debate. On Austrian German and other Germanic Standard Varieties*. New York & London: Routledge.
- Edelman, Gerhard. 2016. Euskara / Basque: The importance of status for the development of a pluricentric language. In Rudolf Muhr (arg.), *Pluricentric Languages and Non-Dominant Varieties Worldwide. Part I: Pluricentric Languages across Continents. Features and Usage (Österreichisches Deutsch Sprache der Gegenwart Band 18)*, 91-105. Frankfurt: Peter Lang.
- Euskaltzaindia. 1979a. Erakusleak. *Euskera* 24 (2. aldia). 629-632.
- Euskaltzaindia. 1979b. Deklinabidea: Euskaltzaindiak deklinabideaz eskaintzen duen erabakia. *Euskera* 24 (2. aldia). 633-657.
- Haugen, Einar. 1966. Dialect, language, nation, *American Anthropologist* 68. 922-935.
- Haugen, Einar. 1968. The Scandinavian languages as cultural artifacts. In Joshua Fishman, Charles Ferguson & Jyotirindra Das Gupta (arg.), *Sociolinguistics* 1. 267-284. New York: Wiley.
- Haugen, Einar. 1987. Language Planning. In Ulrich Ammon, Jeroen Darquennes & Susan Wright (arg.), *Language Problems of Developing Nations*, 626-637. Berlin & New York: Walter de Gruyter.
- Hualde, Jose Ignacio & Koldo Zuazo. 2007. The Standardization of the Basque language. *Language Problems & Language Planning* 31(2). 143-168.
- Institut d'Estudis Catalans. 2016. *Gramàtica de la llengua catalana*. Barcelona: IEC.
- Kloss, Heinz. 1967. 'Abstand' languages and 'Ausbau' languages. *Anthropological Linguistics* 9(7). 29-41.
- Mitxelena, Koldo. 1968. Ortografia. *Euskera* 13 (2. aldia). 203-219.
- Mitxelena, Koldo. 1972a. Aditz batuaz. In Patxi Altuna (arg.), *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 119-125. Bilbo: Mensajero.
- Mitxelena, Koldo. 1972b. Azken ordukoak. In Patxi Altuna (arg.), *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 365-401. Bilbo: Mensajero.
- Mitxelena, Koldo. 1973. Aditz laguntzaile batua. *Euskera* 18. 5-8.
- Mitxelena, Koldo. 1982. La normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco. *Revista de Occidente* 10-11. 55-75 (Berrargit. Joseba Andoni Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluz [arg.], *Luis Michelena. Obras Completas* 10, 3-21. 'Julio Urkixo' Euskal Filologia Mintegia & UPV/EHU, 2011).
- Muhr, Rudolf (arg.). 2012. *Non-Dominant Varieties of Pluricentric Languages. Getting the Picture (Österreichisches Deutsch Sprache der Gegenwart Band 14)*. Frankfurt & Vienna: Peter Lang.
- Muhr, Rudolf. 2013. Codifying linguistic standards in non-dominant varieties of pluricentric languages – adopting dominant or native norms? In Rudolf Muhr, Carla Amorós Negre,

- Carmen Fernández Juncal, Klaus Zimmermann, Emilio Prieto & Natividad Hernández (arg.), *Exploring Linguistic Standards in Non-Dominant Varieties of Pluricentric Languages. Explorando estándares lingüísticos en variedades no dominantes de lenguas pluricéntricas* (Österreichisches Deutsch Sprache der Gegenwart Band 15), 11-44. Frankfurt & Vienna: Peter Lang.
- Muhr, Rudolf (arg.). 2016a. *Pluricentric Languages and Non-Dominant Varieties Worldwide. Part I: Pluricentric Languages across Continents. Features and Usage* (Österreichisches Deutsch Sprache der Gegenwart Band 18). Frankfurt & Vienna: Peter Lang.
- Muhr, Rudolf. 2016b. The state of the art of research on pluricentric languages: Where we were and where we are now. In Rudolf Muhr (arg.), *Pluricentric Languages and Non-Dominant Varieties Worldwide. Part I: Pluricentric Languages across Continents. Features and Usage* (Series Österreichisches Deutsch Sprache der Gegenwart Band 18), 13-37. Frankfurt & Vienna: Peter Lang.
- Muhr, Rudolf, Carla Amorós Negre, Carmen Fernández Juncal, Klaus Zimmermann, Emilio Prieto, Natividad Hernández (arg.). 2013. *Exploring Linguistic Standards in Non-Dominant Varieties of Pluricentric Languages. Explorando estándares lingüísticos en variedades no dominantes de lenguas pluricéntricas* (Österreichisches Deutsch Sprache der Gegenwart Band 15). Frankfurt & Vienna: Peter Lang.
- Polanco, Lluís. 1984. La normativa al País Valencia. Problemática i perspectives. In Maria Teresa Cabré, Joan Martí, Lidia Pons & Joan Sola (arg.), *Problemàtica de la normativa del català. Actes de les Primeres Jornades d'Estudi de la Llengua Normativa*, 107-146. Barcelona: Publicacions de l'Abadia de Montserrat.
- Real Academia Española y Asociación de Academias de la Lengua Española. 2009. Prólogo. *Nueva Gramática de la Lengua Española*, xxxix-xlviii. Madrid: Espasa.
- Rigau, Gemma. 2020. La Gramàtica de la llengua catalana del Institut d'Estudis Catalans. Descripción y prescripción. *Euskera* 65(2). 311-327.
- Ruiz, Francesc, Rosa Sanz & Jordi Solé. 2001. *Diccionari de sociolingüística*. Barcelona: Enciclopedia Catalana.
- Salaburu, Pello. 2015. *Writing words. The Unique Case of the Standardization of Basque* (Occasional Paper Series 26). Center for Basque Studies. Nevada: University of Reno.
- Salaburu, Pello. 2018. El proceso de estandarización de la lengua vasca. In Javier Giralte Latorre & Francho Nagore Lain (arg.), *Lenguas minoritarias en Europa y estandarización*, 47-75. Zaragoza: Pressas de la Universidad de Zaragoza.
- Salaburu, Pello & Xabier Alberdi. 2012. The Search for a Common Code. In Pello Salaburu & Xabier Alberdi (arg.), *The Challenge of a Bilingual Society in the Basque Country* (Current Research Series 9), 93-112. Reno: Center for Basque Studies, University of Reno & University of the Basque Country.
- Stillwell, Kevin & Lauren Hetroviz. 2013. The standardizations of Catalan: Latin to present day. *Studies in the Linguistic Sciences: Illinois Working Papers* 2013. 68-86.
- Zalbide, Mikel. 2011. Hizkuntza-aldaeren lekua eta eragina EAEko eskola-munduan. In Andoni Sagarna, Joseba Lakarra & Patxi Salaberri, *Pirinioetako hizkuntzak: oraina eta lehena* (Iker 26), 339-406. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo. 2008. Euskara normaltzeko bideak. In *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. XV. Biltzarra* (Iker 19), 3-13. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo & Badihardugu Euskera Alkartia. 2002. *Deba ibarretik euskararen herrira*. Oñati: Badihardugu Deba ibarreko Euskera Alkartia. https://badihardugu.eus/argitalpenak/deba_ibarretik

